

2003-11-03

SEHASKATIK LIBURURA: BASATI ERRUGABEA

Juan Kruz Igerabide

Ez naiz mintzatuko Homeroren formulez nahiz Platonek baztertzen zuen ahozkotasan poetikoaz, edo Zumthorrek arte herrikoia kulturaren naufragiotzat jotzen zuenekoaz.. Ez naiz mintzatuko *Semang* leinuaz edo *inuit*-en ahozko tradizio aberatsaz. Ez naiz mintzatuko, halaber, Euskal Herriak eman duen ahozko tradizio bipilaz. Eta ez naiz hasiko aztertzen bertsolaritzaren ahozkotasanak zenbat ote duen tradiziotik eta zenbat erretorika “literario” batetik. Basati errugabeaz esan nahi nituzke bizpahiru hitz, haurraz alegia, eta, horrela, datorren egun hauetako batean jorratuko den gai bati adabaki bat eskaini. Nire mintzagaia ez datorkit jakin-min intelektualaren haritik, baizik eta gaurko gizarte gurean ikusten ari naizenak eragiten didan kezkatik.

Gaurko mundu aurreratu honetan geratzen zaigun basati errugabe bakarra haurra da. Gizaki basatia naturaren erritmoan bizitzetik makinaren eta egitarauaren erritmoan bizitzera pasatu da, oro har. Lur zabalean, leku ezkutu gutxi geratzen dira hari elektrikoaren edo antenahinen agintetik aparte; aldeaz edo moldez, gizaki guztiok gaude zibilizazioaren atzaparretan.

Nire lan honi, hasiera batean, “Arrazoiaren erritmoan” izenburua ipintzea bururatu zitzaidan, baina ez nago erabat ziur makinaren eta egitarauaren erritmoa hain arrazoitsua ote den. Naturaren erritmoa hautsi eta giza boterearen erritmoa gailentzen hasten den une beretik agertzen da gizarteetan egitarau artifizial baten beharra, denbora eta gizarte bizitza arrazoiaren logikaz antolatuta beharra. Behar horiei laguntzen die idazmenak, behar horiei laguntzen die makinak, behar horiei laguntzen die hari elektrikoak. Behar horiek ez dira, jakina, fisikoak edo materialak soilik; psikologikoak ere badira. Idazmenak zubi egiten du bien artean: alde batetik mundu psikikoa antolatzen laguntzen du; bestetik, mundu materiala ordenatzen du, eta behar psikikoetara egokitzen, egitarauen bidez; edo alderantziz: behar psikikoak behar materialetara egokitzen ditu.

Hori botere-joko bat da, argi eta garbi. Elias Cannetik zioen boterea omen dela gizakiaren gaitz absolutua. Gaitz absolutu horren erreminta nagusietako bat idazmena da, gizartearen antolamenduaren eta egitarauen sorburu bihurtzen den heinean. Hala ere, ez nago erabat ados Canettirekin. Ez dut uste absolutua denik gaitz hori, nahiz eta orokorra izan. Botereak bere baitan darama antibioterea ere, eta idazmena bihurtzen da, preseski, antibiotere horren erreminta nagusia; idazmena baita, hein handi batean, norbanakoaren kontzientzia eraikitzeko baliabide indartsuenetako bat. Hortik jaio da ezkerreko indarrek alfabetizazioan ipini izan duten itxaropena.

Idazmenaren erreinuan ez dago errugabetasunarentzat lekurik, inozentzia galtzeko erreminta baita idazmena; kontzientzia lehenbailehen piztu behar da, bai norbanakoaren

kontzientzia, bai gizarte-kontzientzia; eta kontzientzia pizteak esan nahi du ahalmen kritikoa handitzea, kontzeptuak zehatz-mehatz erabiltzea, buruaren ahalmen analitikoa muturreraino lantzea. Beste modu batera esanda, errugabetasuna galtzea.

Horiek guztiak botere-jokoak dira, jakina, eta joko horietan sartzen dugu haurra ahal bait lehen, Canetik adierazitako gaitzaren kontrako txertoa ipiniko diogulakoan edo. Baina nago txertoa bera ez ote den gaitzaren eragile, nago heziketa bera ez ote den bihurtzen saihestu nahi duen gaitzaren kutsatzaile.

Ez ote dago, beraz, gizarte modernoan basati onarentzako zirrikitu txikienik ere? Ez ote dago antidotorik Canetik seinalatu zuen boterearen gaitzaren aurka? Arrazoi eman behar ote diogu Canetiri, eta gaitz hori absolutua dela aitortu? Izan ere, boterearen kontra dagoen antiboterea bera ere gaiz absolutuak kutsatuta dago; historiak adibide gehiegi erakutsi dizkigu ildo horretatik. Ezkerrak kritika landu du zorrotz, eta horrela kritikaren kritikaren kritikara iritsi gara, eta, pauso bat areago joan nahi izan duenak nihilismoarekin egin du topo aurrez aurre.

Hala ere, bada zerbaiz gizakiaren baitan, botere-jokoak ezabatzen ez duena, maiz artearen bidez azaleratzen dena: errugabetasun-egarri aseegin bat, artearen sorburu nagusietako bat. Idazle, pintore, eskultore, musikari eta beste askoren aitortpena izan da ezen haurtzarora itzultzeko ahalegina dela beren ibilbide estetiko guztia, hasierako errugabetasun harekin begiratu nahi diotela munduari. Beste nolabait esateko, basati onaren begiekin begiratu nahi diotela munduari. Jarrera hori muturreraino eramanda joan zen Stevenson *tusitala*, kontalaria Ozeano Bareko uharte galduetara, eta orobat Paul Gaugin pintorea, biak ala biak basati onaren bila, naturaren erritmoa berreskuratu eta naturaren indarraren eraginez bizi nahi izatera.

Gure lur hauetan, Oteizak berak ere behin baino gehiagotan aitortu zuen errugabetasun-egarri hori; eskultore handi eta gaixto hark ume handi bat ematen zuen askotan.

Dena dela, ez naiz orain hasiko oihaneko bizitza idealizatzen, ez halaber haurtzarora goraiipatzen; azken batean, basati ona ere idealizazio bat besterik ez da; ongi asko dastatu zuten hori Gauginek eta Stevensonek, eta berdin kultura zaharrekin harremanetan aritu diren ikertzaileek eta misiolariak. Walter J. Ong-ek ere garbi asko adierazi zigun ahozketasunaren gizartea ez dela ideal bat; eta, areago, inoiz ez omen da izan ideal bat. Erreminta bat da ahozketasuna, izpiritua zailtzeko erreminta bat, izaera errotzeko tresna bat. Ez dago, haatik, oihanera edo Ozeano Bareko uharteetara edo Afrikaren bihotzera jo beharrik Rousseuren basati onaren bila, gure artean baitaukagu; jaiotzatik hasi eta makinaren eta egitarauaren mende errenditu arte hezten dugun haur hori bera da geratzen zaigun basati on bakarra.

Dena den, badakigu irakasleok zein gurasook ezen basati txiki horiek ez direla batzuetan guk uste bezain onak; hala ere, badute halako gardentasun bat, halako errugabetasun bat, oraindik botereak kutsatu gabea, oraindik makinaren eta egitarauaren mende erori gabea, oraindik “makinaziora” iritsi gabea, nahiz eta hari elektrikoaren eraso gero eta goizago jasan behar izaten duten.

Orain arte esan dudanarekin zertara natorren adieraziko dizuet: iruditzen zait ahozko kulturaren ezaugarrietako bat dela halako gardentasun espiritual bat, halako tolesgabetasun bat...; jakina, tolesgabetasun eta errugabetasun horrek ez du zerikusirik kristautasunak eta etika zibilizatuak aldarrikatzen dutenarekin; aitzitik, piztia batenarekin zerikusi zuzenagoa du. Horrela, bada, ahozko kulturetan ikus zitekeen gardentasun haren zantzuak gordetzen ditu haurrak lehen urteetan. Aski da Piageten azterketak irakurtzea, jabetzeko zenbaterainoko parekotasuna dagoen ahozko kulturen ikusmolde animistaren eta haurrak lehen urteetan izaten duen ikusmoldearen artean.

Pedagogiaren alorrera etorrira, orain, auzitan jarri nahi nuke puntu bat, nire ustez etorkizuneko gizartearen buru-osasunerako garrantzitsua dena. Nik ez dut ukatuko adin batetik aurrera prestakuntza zientifikoa eta intelektuala beharrezkoak direnik, ezta gutxiagorik ere. Auzitan jarri nahi nuke, hala ere, haurrak lehen zazpi urteetan jasotzen duen pedagogia. Adin horretan, nik uste, ahozko tradizio aberats bat jaso behar luke haurrak, zenbait arrazoirengatik:

-lehenik, haurraren ezaugarri psikologikoak oso ondo uztartzen direlako ahozko kulturen izaera analogikoarekin, eta haurrak pentsamendu magiko-sinbolikoa garatzeko berebiziko ahalmena duelako.

-bigarrenik, gizakiak baduelako bere baitan jatorrira itzuli nahi bat, haurtzarora itzuli nahi bat, gero helduaroan batzuetan modu patologikoan agertuko dena, agian bere garaian ase gabe utzitako egarri askoren kausaz. Baina itzuli nahi hori, bestalde, historiaren jatorrira joan nahia ere bada, gizakiaren haurtzarora heldu nahia, jatorria ukitu nahia. Haurtzaroan ahozko kultura sendo bat hartzeak asko erraztu lezakeelakoan nago bidaia hori, gero handiak garenean jatorrira egin nahi dugun itzulbide hori.

Haurtzaroan pentsamendu magiko-sinboliko indartsu bat eraikitzeak, geroko kinka psikiko larrietan helduleku indartsu eta egonkor bat izateko aukera eman lezake. Bettelheim baino areago joanez, Jung-en ondorengoekin bat nator: gizartearen osasun psikikoa are ahulagoa izango da, zenbat eta ahulagoa izan haurtzaroan eraikitzen den pentsamendu magiko-sinbolikoa. Pentsamendu magiko-sinbolikoa eraikitzeke, lehen oinarrikoa zen erlijioaren eta erritoaren laguntza; gaur, aldiz, ia galdurik dago gizarte aurreratuetan, eta, beste alde batetik begiratuta, familiako tradizio imaginarioa ere etenda dago erabat. Gero eta beharrezkoagoa da ahalegin pedagogiko berezi bat, altxor tradizionalaren onurak geureganatu nahi baditugu, eta horretan eskolak betebeharrak zuzena du; izan ere, haurrak gero eta goizago hasten dira eskolara.

Pentsamendu magiko-sinbolikoa eraikitzeke, beraz, bi zutabe nagusi dauzkagu eskura: alde batetik, etxea, familia; eta bestetik, eskola. Bien artean zerbait sendoa eraiki beharra dago, ahozko kultura zaharra erabiltzen hasi, erabileraren poderioz berritu, eta gizarte bizitzaren parte bihurtu. Eraberritze hori ez dezala, mesedez, botereak edo antibotereak programatu, maizegi ibili baikara denbora galtzen horretan. Ahozkotasunaren eraberritzea erabilerak eta berpizteak eragingo du, eta bide horretan mundu inkontzienteak agindu behar du eta ez programazioak edo kritika ideologikoak.

Iruditzen zait gaurko pedagogo eta psikologo gehientsuenak oso urrun dabilzala horretaz jabetzetik, konduktismo berehalakoaz erantzun nahirik arazoei. Eta zer esanik ez, gurasook;

are galduago sentitzen gara. Haurraren imaginarioa telebistaren, ordenagailuaren eta disko konpaktuen bidez elikatzearekin konformatzen gara. Pentsatze hutsak odola urtzen dit. Ez dut katastrofista izan nahi, baina katastrofe espiritual handi bat gerta dadin uzten ari ote garen iruditzen zait, eta katastrofe horren ondorioak depresiotan, anorexiatan eta mila arazotan nozituko ditugulakoan nago. Jakina, gizakiak, eta bereziki haurrak, baditu itomenaren aurrean defentsa mekanismoak. Haurrak, bere erara, beste bide batzuk bilatuko ditu hondamendiaren baitan, eta konpentsazio moduak aurkitu. Baina, zenbatez indartsuago eta orekatuago ez ote lioke erantzungo barne-psykearen antolamendu sinboliko indartsu batekin?

Oraintsu ordenagailu berriak ipini dituzte eskoletan. Haur eskolak ere ordenagailuz bete nahi dira. Nik ez dut teknologiaren kontrako purista bat izan nahi. Baina iruditzen zait horrelako jokabideekin ez ote garen ari benetako hutsunea estali nahirik. Bi-hiru urterekin, lau-bost urterekin, haurrak kantatu eta kontatu egin behar luke etengabe; ordenagailuak, aldizkariak, idazmenarekin harremanetan hasia... horiek guztiak eranskinak dira, interesgarriak bai, baina eranskinak. Behar bezala kantatzeko eta kontatzeko, irakasleak ahozko tradizioa erabiltzen ikasi behar du, erruz, ez musikaren apaingarri huts gisa.

Ez da kontua haur txikiek gaurko bertsolarien bertsoak edo haurren kantak egiten dituztenen piezak imitatzen ikastea. Nire ustez atzerago jo behar da, mendeetan ondutako pieza zaharrak ikasi behar dira, eta ez genero bakarrekoak, ahalik eta gehienetakoak baizik: bai sehaska kantak, bai jolas-kantak, bai igarkizunak, bai amandre ipuinak, bai irri-ipuinak, bai bertso zaharrak, bai pasadizioak. Eta gure hutsuneak beste herrietako tradizioekin ere bete ditzakegu, herriek historian zehar elkarrekiko kontaktuan egin izan duten bezala. Besteen amandre ipuinak ikasi eta kontatzen ditugu, besteen kantu zaharrak ikasi eta moldatzen, besteen igarkizunak eta jolasak geureganatzen. Formari dagokionez ere ez gaitzen estuak izan; errima baino interesgarriagoa iruditzen zait hoskidetasun zabal bat, oihartzun fonetikoak; erritmo silabiko ongi neurtua baino nahiago dut erritmo askea, bihotzarena, pausoarena, barne sentipenena.

Tradizio zaharreko piezak aditzean, haurrak lehen aldiz bizitzen ditu; eta ehungarrenean entzuten dituenen ere, *performance*-aren eraginez, berriak balira bezala bizitzen ditu. Tradizioa jolasarekin eta barne-adierazpenarekin lotzen denean, beti berria da, eta horrela hartzen ditu berrikuntzarik interesgarrienak.

Lan hori aurrera eramateko ez dut uste programazio zail eta antolakuntza apartekorik behar dugunik. Ahozko tradizioaren zati handi bat behintzat jasota dago. Tradizio hori idazmenaren hilobitik atera, eta berriro martxan jarri behar genuke, nire ustez.. Idazmenak berak eta bitarteko elektronikoek biltegi eskuragarri bat eskaintzen digute. Biltegi horri hautsa kendu eta ahoz aho tradizio aberats bat berriro martxan ipintzea da kontua. Haurrari erakusten zaizkion kantu moderno, funsgabeak, haurrari kontatzen zaizkion ipuin gero eta espektakulu-giro eta telebista-usain handiagoa dutenak, ez dut esaten baztergarriak direnik; esaten dut, eskolak behintzat zerbait sendoagoa eskaini behar lukeela, eta bide hori kutsatzen saiatu etxeetan ere. Esan bezala, bi leku nagusi baitaude ahozkotasuna berpizteko, eta bi leku horiek haurraren egoera afektibo indartsuekin loturik agertzen baitira:

-Lehenengo lekua, oinarrizkoena, etxea da; eta, etxe barruan, sehaska eta ohea. Sehaskako haurrarekin komunikazioa lortzeko milaka kantu eskaintzen dizkigu ahozko tradizioak.

Haurrak ez ditu hitzak “ulertzen”, baina beste hizkuntza bat, oinarrizkoagoa, hartzen du, sentimenduen hizkuntza, eta adierazpenaren ibaia. Haurra komunikazioaren ibaian sartzen da, eta ibai horretan *feed back* oinarrizko bat jaiotzen da, hizkuntza ororen oinarria, mintzaira unibertsala, kontzeptuak eta ideiak baino lehenago dagoen komunikazio ibaia; ibaiaren sinboloa erabili izan dute idazmena ezagutzen ez duten ahozko tradizioko berri-emaile askok hizkuntza zer den adierazteko.

Nik uste alde handia dagoela ibai hori ur gardenez ongi hornitzearen edota erdi lehor eduki eta zaborrez betetzearen artean.

-Bigarren lekua eskola da. Gero eta goizago, eskola bigarren etxe bihurtzen ari da, eta irakaslea gurasorde. Bigarren horretan zailxeagoa da aipatu ibai hori hornitzen, baina laguntza handia eskain dezake eskolak, kanal batzuk eraikiz, ibaia ur gardenez hornitzeko, eta zaborra birziklatzeko.

Haur tradizioa berpiztea helburu eskuragarria da oraindik gure gizartean; gure eskolako lehen urteetan ahozko generoak nagusi izan behar dutela iruditzen zait, eta gero ere ez da alde batera uzteko kontua. Gaur egun, ahozkotasanaz asko mintzaten da, euskararen normalkuntza dela eta, baina ahozkotasanaren planteamendu hori erabat utilitarioa da; eguneroko elkarrizketen egokitasuna bultzatu nahi da, baina ahozkotasanarena, berez, askoz ikuspegi sakonagoa da, eta giza izaeraren muinera jotzen du, eta gizartearen ereduak auzitan jartzen ditu. Alde batetik oroimenaren indargarri da, ezen, Ongek ongi zioen bezala, idazmenak eta bitarteko elektronikoez oroimena ahuldu egiten baitute, kalkulagailuek burua moteldu, ordenagailuak sena zapuztu. Zergatik txiki-txikitandik lehenbailehen irakurri eta ordenagailuan ibili behar hori? Zer aurreratzen da? Trebezia batzuk lortzen dira, jakina, baina beldur naiz trebetasun horiek txorakeriak egiteko trebeziak ez ote diren; gaur egun, baboa izateko ere trebe izan behar baita.

Berriz ere Ong aipatuz, idazmena heriotzarekin lotua dago, estatikoa da, zurruna. Idatzita dagoenari ahotsak beroa eta bihotza ipini behar dizkio, baina ez zait aski iruditzen irratian, telebistan eta beste komunikabideetan lortzen den ahozkotasan uniformizatu hori. Seinale bereizgarriak gero eta beharrezkoagoak ditugu, eta gakoa haurtzaroan dago, familietan zein haur eskoletan. Familietan telebistarik, irratirik eta ordenagailurik gabeko barau-egun bat astean aski litzateke zerbait egiten hasteko, baina ez nuke nahi orain hori ere kontsigna bihurtzea, kontsignak ere uniformizatzeko indarrak baitira.

Lehen aipaturiko ibai hori hornitzeko ahalegina gizartearen osasun espiritualerako oinarrizkoa dela iruditzen zait. Eta ibai hori itsasora iritsiko da, liburuaren itsasora, baina beste ur batzuekin. Beharbada, orduan, haurrak beste begi batzuekin irakurtzen, beste oihartzunez beteriko belarriekin entzuten ikasiko du.

Hornitze horrek ez du ahalegin ikaragarriarik eskatzen, ezta gutxiagorik ere; oso lan erraza da. Kontua da, ordea, arazoaz jabetzea; kontua da ados jartzea ea zer jotzen dugun zabortzat eta ea zer jotzen dugun ur gardentzat; kontua ohartzeko da, eta jarrera batzuk hartzea. Ez du diru-inbertsio ikaragarriarik eskatzen, ez du formazio-plangintza konplikaturik eta teknika moderno zailak ikasterik eskatzen, gogoia besterik ez, asmoa besterik ez.

Proba egitea ez da zaila, eta merezi duela iruditzen zait. Ibai luze bat daukagu zain.